



the Digital Language Diversity Project

Bide Orria

Gomendatutako politikak & Kronograma

Laburpen-orria

- » Gaur egun, 6.000-7.000 hizkuntza hitz egiten dira munduan, eta horietako asko desagertzeko arriskuan daude.
- » Europako eta munduko hizkuntza-aniztasuna babesteko eta sustatzeko politika iraunkor bat ezartzeko, garapen digitalerako politikak hartu behar dira. Gure bizitzaren zati handi bat Interneten eta gailu digitaletan gertatzen denez, ezinbestekoa izango eremu digitala ziurtatzea hizkuntza gutxituen hiztunei (eskualde-hizkuntzen eta galzorian dauden hizkuntzen hiztunak barne).
- » Hurrengo belaunaldientzat hizkuntza-aniztasun digitala bermatuko badugu Europan, aniztasun hori babestuko duten Europa mailako politika eta legedi garrantzitsuak behar ditugu. Bestela, hizkuntza horien hiztunek erloju-bonba digital bat dute aurrean. Izan ere, garapen digitala gaur egun egiten ari den bidea kontuan hartuta, hiztun horiek ezin izango dute beren hizkuntza erabili gero eta digitalizatuagoa dagoen gizarte honetan.
- » Europar Batasunean, 24 hizkuntza ofizial daude, eta gutxiago erabiltzen diren beste 60 hizkuntza. Haiek guztiek estatus bera izan behar luketen arren, hizkuntza ofizialak bakarrik daude erabat aitortuta. Garapen digitalaren potentzialak auzeratu ematen digu arrakala digitala murrizteko, eta hizkuntza-berdintasun digital handiagorantz aurrera egiteko.
- » DLDPrek ikerketak erakusten du gutxiago erabiltzen diren hizkuntzen garapen digitalak komunitateari egin behar diola mesede, ez hizkuntza-teknologiaren (HT) industriaren eta enpresen interesei.
- » Hizkuntza-berdintasuna eta -aniztasuna dira Europako proiektuaren ardatz, eta EBk, orain, aukera du herritar guztiak ahalduz, beren hizkuntza propioak mundu digitalean erabili ahal izan ditzaten. Faktore horiek kontuan hartuta, etorkizun digitalerako hizkuntza-berdintasuna bermatze aldera, DLDPrek partzuergoak gomendio-sorta zabal bat prestatu du.
- » Gomendio garrantzitsuenek diote legediak bermatu behar duela estatuek gutxiago erabiltzen diren hizkuntzen zerbitzu digitalak garatzea, gain-gainean dugun erloju-bonba digitala saihesteko; orobat diote Hizkuntza Aniztasun Digitalaren Proiektua hedatu egin behar dela Europa osoan ikerketa bat egiteko, gutxiago erabiltzen diren Europako hizkuntza guztien behar digitalei buruz.

Edizioa

DLDP Bide Orria / The DLDP Roadmap

Egileak:

Davyth Hicks, Paola Baroni, Klara Ceberio Berger, Antton Gurrutxaga Hernaiz, Eleonore Kruse, Valeria Quochi, Irene Russo, Tuomo Salonen, Anneli Sarhimaa, Claudia Soria

Lan hau Hizkuntza Dibertsitate Digitalaren Proiektuaren barruan egin da (www.dldp.eu/eu), Europar Batasunak finantzatua Erasmus+ Programaren barruan (2015-1-IT02-KA204- 015090 finantzazio-akordioa).

© 2018

Lan hau Nazioarteko Creative Commons Aintzatespen 4.0 lizentziarekin dago.

Azalaren diseinua: Eleonore Kruse

Lege-oharra

Argitalpen honek egileen ikuspegia azaltzen du eta Erasmus + Agentzia eta Batzorde Nazionala ez dira eduki horien erabileraren erantzule egiten.



www.dldp.eu



www.facebook.com/digitallanguagediversity



dldp@dldp.eu



www.twitter.com/dldproject

Download the
full Roadmap



the
Digital Language
Diversity Project

DLDPk gomendatutako politikak

Hizkuntza-berdintasuna eta -aniztasuna dira Europako proiektuaren ardatz, eta EBk, orain, aukera du herritar guztiak ahalduz, beren hizkuntza propioak mundu digitalean erabili ahal izan ditzaten. Hizkuntza gutxituen hiztunak erloju-bonba baten aurrean daude, garapen digitala gaur egun egiten ari den bidea kontuan hartuta, ezin izango dute beren hizkuntza erabili gero eta digitalizatuagoa dagoen gizarte honetan. Faktore horiek kontuan hartuta, etorkizun digitale-rako hizkuntza-berdintasuna bermatze aldera, DLDPren partzuergoak gomendio hauek egin ditu Europa osorako:

- 1 Europako legediak berma dezala gutxiago erabiltzen diren hizkuntzek, hizkuntza ofizial gutxiuak barne, aro digitalean funtzionatzeko behar den hornidura digitala edukiko dutela. Adibidez, Merkatu Bakar Digitala aurrera aterako bada, herritarrek hartarako sarbidea izan behar dute beren hizkuntza propioan, baita hizkuntza gutxituetan eta hizkuntza ofizial gutxituetan ere. Bestela, proiektua ahuldu egingo litzateke, eta hainbat zalantza agertuko lirateke eskubideen inguruan.
- 2 Hizkuntzari buruzko egungo legediari eta hizkuntza gutxiuak babesten dituzten nazioarteko itunei protokolo gehiago eranstea, sektore publikoko zerbitzuek hizkuntza gutxiuen hornidura digitala berma dezaten, eta hizkuntza horien garapen digitala gehiago erabiltzen diren hizkuntzenen parekoa izan dadin.
- 3 Hizkuntza Aniztasun Digitalaren Proiektua (DLDP) hedatzea, Europako hizkuntza gutxiu guztiak ebaluatzeko. Hizkuntza gutxiuen behar digitalei buruzko datuak biltzeko (politikak eta plangintza bideratzeko behar den ebidentzia-base bat eraikitzeko), DLDP proiektua hedatu egin behar da, hornidura digitalik ez duten Europako hizkuntza gutxiu guztietara iristeko. Hori errazteko, EBk proiektu-proposamen baterako deialdi itxi bat egin beharko luke, edota lankidetzan hasi DLDPren partzuergoarekin.¹
- 4 Aurreko hiruzet gain, Europa mailako ikerketa bat egitea, Europako hizkuntza guztientzako hizkuntza-teknologiaren eta -baliabideen egoerari buruzkoa.
- 5 Gomendatzen du Europar Estatuak mailan eskala handiko eta epe luzeko ikerketa, garapena eta berrikuntza finantzatzeko programa bat lortzea, xede duena teknologia eta zerbitzu berritzaileak garatzea, eta Europako hizkuntzen artean dagoen arrakala teknologikoa murrizten laguntzea.
- 6 Hizkuntza-teknologiaren Europako plataforma bat sortzea, Europako hizkuntza guztien ordezkari-ekin, hizkuntza-teknologiari lotutako baliabideak partekatu ahal izan daitezkeen. Horrez gain, teknologia transferi dadin eta baliabideak eta metodologiak partekatu daitezkeen sustatzea, elkarlan-programak sortuz (hala nola programa transnazionalak) hurbileko hizkuntzen artean.
- 7 EBko erakundeak kontzientziaztea zer onura dituen enpresentzat, erakunde publikoentzat eta herritarrentzat onlineko zerbitzuak, edukiak eta produktuak eskura izateak gutxiago erabiltzen diren hizkuntzetan, hizkuntza-oztopoak gainditzeko eta hizkuntza-komunitateen kultura-ondarea babesteko.
- 8 Maila guztietako administrazioei eskatzen die erraztu dezatela gutxiago erabiltzen diren hizkuntzetako onlineko zerbitzu eta informaziorako sarbidea, eta erabil dezatela lehendik existitzen diren hizkuntza-teknologiak, hala nola itzulpen automatikoa, hizketa-ezagutza eta testu-ahots bihurtzaileak, zerbitzu horien erabilgarritasuna hobetzeko.
- 9 Sare sozialek eta HT/IKT-en enpresek DLDPren lan egitea, hizkuntza-aniztasunerako garapen digitala bermatzeko.
- 10 Datu irekiak sor daitezkeen bermatzea; hots, erraz lor daitezkeen datuak, eta murriztapen gutxirekin edo murriztapenik gabe erabil daitezkeenak. Datu irekiak eskura izateak berebiziko garrantzia du datu gutxi dituzten hizkuntzetarako softwarea eta teknologia azkar garatu dadin.

¹ Kontuan izan gomendio horiek jasota daudela Europako Parlamentuaren txosten honetan: 'Language Equality in the Digital Age'. (Jill Evans, Europako Parlamentuko kidea).

Bide-orriaren kronograma

Epe laburreko (2018-2020) neurriak, Europako eta nazioarteko erakundeekin harturikoak.



1

Europako Parlamentuaren (EP) ekimena, hizkuntza-aniztasun digitala babesteko.

2018ko iraileko Europar Parlamentuaren osoko bilkuran "Hizkuntzen berdintasuna aro digitalean" (2018/2028)² Jill Evans Europar Parlamentuko kideak (EFA-Berdeak) aurkeztutako txostenak gehiengo handiz irabazi zuen botazioa: 592 parlamentarik alde, 45ek kontra eta 44 abstentzio. ELENek (Hizkuntza Berdintasunerako Europako Sarea) eta DLDPk lagundu zuten txostena osatzen eta DLDPko aholkulariei horren inguruko kontsulta egin zitzairen. Nahiz eta txostena bere ekimeneko txosten bat bakarrik izan, eta ez txosten legegile bat — alegia, ez du behartzen Batzordea Europako lege bihurtzera —, aurrera ateratzen bada, Europar Parlamentuaren iritzia eta zalantza gabeko babes ahalak dituen proposatutako neurrien inguruan. Horietako neurri bat DLDP zabaldu eta hedatzea izango da, Europako hizkuntza gutxitu guztien azterketa egin eta haien garapen digitalerako gomendioak egiteko.

Horrez gain, bada irismen handiko beste ekimen bat: Giza Hizkuntzaren Proiekturako proposamenak, EPren STOA³ dokumentuan deskribatuak. Hori aurrera ateratzen bada, ezinbestekoa izango da DLDPren ondorioak aintzat hartzea, eta proiektuan hizkuntza gutxituen garapen digitala txertatzea eta lehenestea (2018-2020).

2

DLDPren emaitzak EPko kideentzat / Batzordearentzat / Europako Kontseiluarentzat 2018

DLDP proiektua 2018an amaituko da, baina, horren aurretik, DLDP dagozkion batzordekideekin bilduko da (Ansip, Navracsics, Gabriel), proiektuaren emaitzak jakitera emateko, eta proiektua Europako hizkuntza gutxitu guztietara hedatzen eskatzeko (2018-2019).

3

Merkatu Bakar Digitalaren eztabaidan, geolokalizazioan eta STOA txostenean sartzeko DLDPren emaitzak.

DLDPko kideek DLDPren ekarpenak eta emaitzak erabiliko dituzte EBn egiten ari diren zenbait eztabaidatan parte hartzeko (esaterako, Merkatu Bakar Digitala, geolokalizazioa eta gutxiengo nazionalen txostena), DLDPren ondorioak eta proposamenak eztabaidara eta proposamenetara ekar daitezela (2018-2019).

4

EBko estatuek ematen duten babesaren gainean erakitzea

Baliabide gutxiak dituzten EBko zenbait estatuk, hala nola Estatu Baltikoek eta Esloveniak, irmoki babestu dituzte hizkuntza-garapen digitalak. Babes hori lagungarria izan daiteke DLDPren proposamenak garapen digitalari eta hornidurari buruzko eztabaida zabalagora ekartzeko.

5

Europako Kontseilua

DLDPren emaitzak eta proposamenak aurkeztuko zaizkie Eskualde Hizkuntzen edo Hizkuntza Gutxituen Europako Gutunaren (EHHGEG) Aritu Batzordeari, Gutxiengo Nazionalentzako Esparru Hitzarmenaren (GNEH) Aholkularitza Batzordeari eta Europako Kontseiluaren Parlamentu Biltzarrari. Nabarmenduko da hizkuntza gutxituentzako garapen digitala lagungarria izango dela Gutuna eta GNEHa hobeto inplementatzeko. EBren kasuan bezala, DLDPk laguntza eskatuko du proiektua hedatzen Europako hizkuntza gutxitu guztiak hartzeko barnean. Hizkuntza gutxituen hizkuntza-hornidura digitala kontrolatzeko eta garatzeko eskaera protokolo gehigarri gisa erantsi zaie EHHGEGari eta GNEHari. (2018-2019)

6

Nazio Batuak

DLDP/ELEN Herri Indigenen Foro Iraunkorrek eta Gutxiengoentzako Foroko Nazio Batuetako ordezkariekin bilduko da, eztabaidatzeko zer onura ekartzen dizkien garapen digitalak gutxiago erabiltzen diren hizkuntzei eta hizkuntza indigenei, eta gomendatzeko egin daitezela Trebakuntza Programa eta Bizirauteko Kita. (2018/2019)

7

UNESCO

DLDP/ELEN UNESCOrekin bilduko da, DLDPren ekarpenak eta ondorioak aurkezteko. 2019an, Hizkuntza Indigenen Urtea antolatuko du UNESCOk, ELENen parte-hartzearekin. Bilerak antolatuko dira Ezagutzaren Gizartearen Sailarekin, UNESCOrekin DLDP proiektua sustatzeko. (2018/2019)

² <http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//NONSGML+REPORT+A8-2018-0228+0+DOC+PDF+Vo//EN>

³ [http://www.europarl.europa.eu/thinktank/en/document.html?reference=EPRS_STU\(2017\)598621](http://www.europarl.europa.eu/thinktank/en/document.html?reference=EPRS_STU(2017)598621)

Bide-orriaren kronograma

Hizkuntza-komunitatearen mailan (2018tik aurrera)



1

DLDPren emaitzez kontzientziatzea Europako hizkuntza gutxitu bakoitzaren komunitatearekin.

Hizkuntza gutxituen erakundeen ELEN sarearen bitartez, DLDPk proiektuaren ondorioak jakinaraziko dizkie hizkuntza gutxituen Europako alde interesdun guztiei, hala nola GKE-ei, unibertsitatei, ikerketa-zentroei eta gobernuei.

2

Bermatzea hizkuntza gutxituen komunitateek neurriak hartzen dituztela eta DLDPren ondorioak aintzat hartzen dituztela.

Hizkuntza gutxituen komunitateak DLDPren ondorioez eta proposamenez jabetzen direnean, garrantzitsua izango da haietako bakoitzak ondorio horiek beren hizkuntzari aplikatzea, Hizkuntzak Mundu Digitalean Bizirauteko Kita eta trebakuntza-ikastaroa erabiliz. Baliteke komunitate bakoitzak bere ikerketa propioa egin nahi izatea hizkuntzak mundu digitalerako dituen lehentasunak aztertzeko, eta herri-ekimenak garatzeko, garapenari laguntze aldera.

3

Hizkuntza gutxituen komunitateen babesa estatu eta Europa mailako ekimen bihurtzea.

Hizkuntza gutxituen komunitateek DLDPren proposamenak inplementatu dituztenean, garrantzitsua izango zaie toki eta nazio mailako ekimenak garatzea, hala nola hizkuntza gutxituak mundu digitalera eramateko proiektuak, beren hizkuntzen gaitasun digitala garatzeko. Legeak ere egin ditzakete prozesu horri laguntzeko.

4

Hizkuntza gutxituen komunitateak bultzatzea lan-harremanak izatera hizkuntzak mundu digitalean garatzen dituzten enpresa handiekin

DLDPk hizkuntza gutxituen komunitatei lagunduko die harremanak garatzen hornitzaile digital nagusiekin, hala nola Googlerekin eta Microsoftekin, bermatzeko enpresa handiek lan egiten dutela beren hizkuntzako hornidura ziurtatzeko. ELENek maila politikoan ekingo dio horri, baina eraginkorragoa da hizkuntza-komunitateak garatzaile handiekin jardutea, beren kasua bizkortzeko.



Meta-Netekin eta LT Innovative-rekin koordinatzea

Meta-Netek bere bide-orri xehe propioa atera zuen, non hizkuntza-teknologiaren garapenerako bidea marrazten baitu. Bide-orri hori HTen industrian oinarritzen da; DLDPren bide-orria, berriz, hizkuntza gutxituen komunitatean. Beraz, garrantzitsua da nolabaiteko koordinazioa planifikatzea, HTen industria jabetu dadin ez bakarrik DLDPren ondorioez, baita hizkuntza gutxituen komunitateen behar digitalez ere, Meta-Netek jada egin duen ikerketaz harago. Hori dela eta, bilerak egingo dira Meta-Netekin eta LT Innovate-rekin, DLDPk eta ELENek maiz hitz egin dezaten hizkuntza gutxituen garapen digitalari buruz. (2018/2019)

HTen industriarekin koordinatzea Giza Hizkuntzaren Proiektuaren inguruan

Arestian aipatu denez, GHPa aurrera ateratzen bada, ezinbestekoa izango da proiektu horretan hizkuntza gutxituen garapen digitala lehenestea. Horretarako, lankidetzan aritu beharko da HTen industriarekin, eta ikerketak egin beharko dira hizkuntza gutxituen komunitatearen behar digitalei buruz. (2020-)

1

2

Bide-orriaren kronograma

Epe ertain eta luzean



EBren Direktiba, hizkuntza-aniztasun digitala bermatzeko

Direktiba bat lagungarria izango litzateke bermatzeko estatuek eta EBk babesten dutela baliabide gutxiko hizkuntzentzako hornidura digitala garatzea. Proposamenak Merkatu Bakar Digitalaren egungo ekimena osatuko du. Zirriborro batek direktiba baten kasua deskribatuko du 2018an, zeina Batzordeari eta Europako Parlamentuko kideei aurkeztuko baitzaie.



Hizkuntza-aniztasun digitalaren gomendioak IKT/HTen industrian txertatzea

DLDPren eta ELENein hitz egin ondoren, IKT/HTen industriak bermatuko du aintzat hartzen direla DLDPren gomendioak.



Hizkuntza-aniztasun digitalaren gomendioak erakunde publikoetan txertatzea.

DLDPk eta ELENe bermatuko dute EBko estatuek, gobernu autonomoek eta toki-gobernuek inplementatzen dituztela DLDPren gomendioak, hizkuntza gutxituen hornidura digitalari dagokionez.



DLDPren proposamenen eta Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Donostiako Protokolo berriaren arteko sinergia bermatzea.

Protokoloak⁴ arauak ematen ditu hizkuntza gutxituak sustatzeko eta babesteko, hizkuntza horientzako HTen garapenak bermatzeko gomendioekin.

⁴ Ikus <http://protokoloa.eus>

Analisia eta Informazioa

Bide-orriaren xedea da hizkuntza gutxituen hornidura digitala normalizatzea IKT/HTen industrian, non Europako hizkuntza guztiak sartzen baitira, bai eta sektore publikoaren hornidura digitala ere.

Aurrerapena kontrolatzeko, EBk informazio-mekanismo bat ezarri beharko du, Direktiban zehaztua, zeinaren bidez hizkuntza gutxituen hornidura digitala kontrolatu eta babestuko baita EBko estatu guztietan.